

VULTOURIS IBILBIDEA: Irunberriko arroila – Arbaiungo arroila (Nafarroa)

ZAILTASUNA:
MODERATUA



Irunberriko arroilaren ondoko aparkalekuan hasten dira ibilbideko seinaleak, baina Irunberritik bertatik ere hasten ahal da, Zaraitzu ibaia-aren ezkerreko bazterrean eramaten gaituzten zubietako bat gurutzatuta. Igerilekuak pasatu eta gero, eskuinaldetik abiatzen den pista batetik joanen gara. Hortik Arbaiungo arroila ikusiko dugu paisaiaren urrunean. Leire mendiko hegaletatik doa bidea, Usun herrira iritsi arte (erne: pista horretatik ibilgailuak ibiltzen dira).

Zaraitzu ibaia (Europar Batasunaren Intereseko Lekua) gure ezkerrean utziko dugu beti. Horren inguruan ibai-ertzeko landaredia ikusiko dugu: sahatsak, haltzak, eta, batez ere, makalak.

Zuhaitz eta zuhaixka mota ugari aurkituko dugu, ezpela, batez ere. Gainera, larizio pinua ere aurkituko dugu; Nafarroako basoberritze-etan asko erabiltzen da, aise hazten baita.

Beste espezie hauek ere aurkitzen dira bertan: karraska, orrea, al-mendrondoa, txaparra, ametz ilaunduna, elorri zuria, arkakaratsa.



IBILBIDEAREN FITXATEGIA



Ibilbidearen distantzia: 9,66 km
Gutxieneko altitua: 416 m
Gehiengo altitua: 498 m
Gehiengo desnibela: 82 m

Centro de Interpretación de las Foces
31440 LUMBIER (Navarra)
Tel.: (+34) 948 880 874
cinlumbi@navarra.es

<http://es.wikiloc.com/wikiloc/view.do?id=1761580>
Argibide gehiago: www.vultouris.net · info@vultouris.net

Bidean barna, eta urte osoan zehar, animalia hauek ere ikusten ahal dira: miru gorria, sai arrea, zapelatz arrunta, belatz gorria, besteak beste. Eta ibaira hurbilduz gero: basahatea, martin arrantzalea edo ur-zozoa.

Bi aukera ditugu Usun herrira iritsi ondoren: bata, Natur Erreserban sartzea, Usungo San Pedro ermitara doan bidetik; bestea, ibia* zeharkatu eta zuzenean igotzea herrira.

Alderantziz ere egiten ahal da bidea, autoa Usungo aparkalekuan utzita.

*neguan eta udaberrian ez dago ibia zeharkatzerik, ibaiaren ur-emia oso handia izaten baita.